

## Scotland Goes Basque

# 86 euskal artistak aurkeztu dute euren lana Eskoizian Etxepare Euskal Institutuaren eskutik

**Etxepare Euskal Institutuak urte osoan zehar sustatutako #ScotlandGoesBasque egitasmoaren baitan 106 emanaldi burutu dira nazioarteko sona duten hainbat hitzordutan.**

**Kultur proposamen horiekin batera, nazioarteko kongresu bat eta bi topaketa profesional egin dira.**

**Irene Larraza: “euskal sortzaileen parte hartzeak oihartzuna eta aitortpena lortu du”.**

Pasa den urrian amaitu da urte osoan zehar Etxepare Euskal Institutuak Eskoizian gauzatu duen #ScotlandGoesBasque programa. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundien laguntza jaso duen egitasmo honek euskal kultura garaikidea Eskoizian ezagutzera ematea, bertako artista eta kultur eragileekin zubiak eraikitzea eta, kulturaren bidez, bi herrialdeen arteko loturak estutzea izan du jomuga.

Programa urtarrilean abiatu zenetik, euskal sortzaileen proposamenak Eskoizian, kulturaren alorrean, dauden hitzordu garrantzitsuenetako batzuetan erakutsi dira, eta Irene Larraza, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren esanetan, euskal sortzaileen parte hartzeak “oihartzuna eta aitortpena” lortu ditu.

Orotara, 86 euskal sortzaile (musikari, antzezle, dantzari, idazle, zine zuzendari eta abar) izan dira Etxepare Euskal Institutuak sustatutako 106 jardueratan. Publikoari irekitako saioez gain, zinearen eta musikaren inguruko topaketa profesional bana, eta nazioarteko kongresu bat ere burutu dira. Guztira, 137 euskal kultur eragilek bidaia egin dute Eskoziara urtean zehar burutu diren jarduera ezberdinetan parte hartzeko.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren hitzetan, “#ScotlandGoesBasque harremanak sendotu, aukera berriak sortu eta etorkizunera begira lankidetzak egonkortzeko parada izan da”. Halaber, lurralde berean hainbat hilabetetan zehar kultur eskaintza zabal bat luzatu izanak “euskara eta euskal kulturaren proiektio anitz eta osoago bat” ematea ahalbidetu duela iritzi du.

“#ScotlandGoesBasque ekimenak, euskal sortzaileen lana nazioartean entzutetsuak diren Eskoziako jaialdietan eskaintzeko aukera eman digu, herrialde askotako ekoizle zein programatzaile ugariaren topagune. Euskal sorkuntza parez pare munduko bazter guztietatik etorritako eta edozein hizkuntzatako sorkuntzarekin batera eskaini ahal izan da, bere maila erakutsi, esperientziak partekatzetik ikasi eta, aldi berean, audientzia berrietara zabaldu da”, adierazi du Larrazak.

Hilabeteotan Eskozian izandako euskal sortzaile eta kultur eragileentzat esperientzia “oso positiboa eta emankorra” suertatu dela adierazi du Institutuko zuzendariak, eta euren lana #ScotlandGoesBasque bezalako programa baten baitan aurkezteak “bakarka egiteak eskaintzen ez dizkien aukerak” ematen dituela nabarmendu du. Bere esanetan, nazioarteko eragileen artean, publikoaren artean bezalaxe, euskarak eta euskal sorkuntzaren berezitasunak “miresmen handia” sortu dute. Piztutako jakinmin horren erakusgarri da, hain zuzen ere, bertan parte hartu duten artista batzuk Eskoziako kultur egitasmo gehiagotan euren lana erakusteko aukera izango dutela #ScotlandGoesBasque proiektuak iraun duen ziklotik haratago.

### **Diziplina ezberdinentzat erakusleihoak**

Neguan, euskal musikaren topagune izan zen Glasgowko **Celtic Connections** jaialdia: urtarrilaren amaieran Huntza, Kalakan, Korrontzi, Oreka Tx eta Tosta Banda talde kultur-anitza izan ziren oholtza gainean. Horrekin batera, musikaren alorreko euskal profesionalek Eskoziako eta Britainia Handiko beste lekuetatik bertaratutako profesionalekin harremanetan jartzeko aukera izan zuten Connecting Cultures topaketan.

Udaberrian zinea izan zen protagonista #ScotlandGoesBasque ekimenaren programazioan. Apirila eta ekaina bitartean, **Basque Spring** zikloak 80ko hamarkadatik gaurdaino euskal

zineak bizitako garapena erakutsi zuen euskal zinemagintzaren izen esanguratsu batzuen lanaren eskutik: Montxo Armendariz, Víctor Erice, Julio Medem, Álex de la Iglesia, Enrique Urbizu, Telmo Esnal, Jon Garaño, Jose Mari Goenaga, Ana Schulz eta Cristóbal Fernández. Bestalde, Kimuak programako film laburrak (Maddi Barber, Josu Martinez, Maria Elorza, Miguel Angel Jimenez, Sara Fantova eta Pello Gutierrezen lanak) ikusteko aukera izan zen, eta emakumeek egindako animazioa ere jarri zen fokua (Begoña Vicario eta Izibene Oñederraren lanak). Filmak askotariko jardueraz lagundu ziren, besteak beste, hitzaldiak, tailerrak edo gastronomia eta zinea uztartzen zituztenak.

**Edinburgh International Film Festival (EIFF)** jaialdian, aldiz, Koldo Almandozen *Oreina* eta Iban del Camporen *Espedizio handia* film laburra aurkeztu ziren; eta, Zineuskadirekin lankidetzan, euskal zine industriako eragileak nazioartekoekin harremanetan jar zitezten topaketa profesional bat antolatu zen Edinburgon.

Udan, Edinburgo arte eszenikoen eta literaturaren munduko hiriburu bilakatzearekin batera, han izan ziren diziplina horietako euskal sortzaileak ere, **Edinburgh Festival Fringe** arte eszenikoen jaialdian eta **Edinburgh International Book Festival** jaialdian. Fringen izan ziren Tio Teronen Semeak, Krego-Martin Danza, Akira Yoshida, Proyecto Colectivo HQPC eta jaialdian saritua gertatu zen 2Theatre taldea; eta han aurkeztu zen, halaber, *Atlantik 1050* euskal zein eskoziar dantza tradizionalen kaleko ikuskizuna. Edinburgh International Book Festival-en berriz, euskal literatura sorkuntzaren ordezkari izan ziren Iban Zaldua, Harkaitz Cano, Uxue Alberdi, Miren Agur Meabe, Bernardo Atxaga, Eider Rodriguez eta Danele Sarriugarte.

Udazkenean, zine dokumentalarekin eta unibertsitate arloko nazioarteko kongresu akademikoarekin eman zaio amaiera #ScotlandGoesBasque programari. Urrian, batetik, *Europa Transit* saileko hiru dokumental (*Kaleko dantzariak*, *Mugaminak* eta *Erresilientzia-soinuak*) proiektatu eta horiekin loturiko proposamen artistiko bana aurkeztu ziren Edinburgo eta Glasgow Sra. Polaroiska, Mursego eta Amets Arzallusen eskutik. Bestetik, Edinburgoko Unibertsitatean *Mugarik gabeko ala mugatutako esparrua? Hizkuntza gutxituetako hedabideak eremu digitalean* nazioarteko kongresua egin zen. Bertan nazioarteko hogeita hamar ikertzaile baino gehiago (horietatik 17 euskaldunak) jardun ziren

komunikazio sistema globalak hizkuntza gutxituei eskaintzen dizkien erronken eta aukeren inguruan eztabaidatzen eta, aldi berean, unibertsitateko ikertzaileen eta hizkuntza horiek lanabes dituzten komunikabideetako profesionalen elkarlanerako abagune bihurtu zen.

## **2020an Quebec jomuga**

Eskozian burutu den kultur programa Etxepare Euskal Institutuaren 2017-2020rako bide-orriaren lehentasunen artean kokatzen da. Izan ere, Institutuaren ildo estrategikoetako bat da herrialde zehatzetan nazioarteko inpaktua duten ikusgarritasun handiko ekintzak gauzatzea.

Era berean, egitasmoa Eusko Jaurlaritzaren Euskadi-Basque Country 2020 Nazioartekotzeko Estrategiaren testuinguruan dago kokatuta. Kultura da estrategia horren ardatzetako bat. EBC 2020k Euskadiren nazioartekotzerako estrategikoak diren herrialde eta eskualdeak identifikatzen ditu. Hauek atzerrian Euskadiren interesen zati garrantzitsu bat biltzen duten lurraldeak dira, 2018-2020 aldian lehentasunezko arreta jasoko dutenak. Besteak beste, EBC 2020k lehenesten ditu Euskadiren Nazioarteko Aliantza Estrategikoen Sareko kideak. Dela gertutasun geografiko eta lotura historiko eta multisektorialengatik, edo dela nortasun errotua duten herrialde homologoak direlako, horien artean daude Akitania, Flandes, Gales, Eskozia, Bavaria eta Quebec.

Hain zuzen ere, azken lurralde hau izango du jomuga Institutuak 2020 eta 2021 urteetan. Quebec-ekin garatuko den lankidetzak honek izaera instituzional handiago izango du, eta alde bikotasunean sakonduko du. Horrela, joan-etorriko izaera duten egitasmo gehiago sustatuko ditu.

**#ScotlandGoesBasque programare laburpen bideoa: <https://youtu.be/Ei1GqVrV3FA>**

### **Info+**

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)